

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O) **2022ko urtarilaren 22tik 28rako astea.**

## **I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:**

### **E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)**

**2022/01/28**

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2022ko urtarilaren 18koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, soinu-irratigintza komertzialaren sektoreko Estatuko hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen duena. **1375 xedapena - 40 or.**

### **B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)**

**2022/01/26**

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** Erabakia Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Elikagaigintza Merkataritzako Hitzarmen Kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48000545011981). **III-15 xedapena - 26 or.**

## **II.- XEDAPEN OROKORRAK:**

### **E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)**

**2022/01/25**

- **BARNE MINISTERIOA. Zirkulazioa. Neurri bereziak.** Ebazpena, 2022ko urtarilaren 18koa, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiarena, 2022an zehar trafikoa arautzeko neurri bereziak ezartzen dituen. **1125 xedapena - 61 or.**
- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA. Administrazio prozedurak. Kudeaketa informatizatua.** Ebazpena, 2022ko urtarilaren 17koa, Itsasoko Gizarte Institutuarena, zeinaren bidez zenbait ekintza eta jarduketaren automatizazioa arautzen den, Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziaren zenbait prestazio aitortzeko prozeduretan. **1127 xedapena - 4 or.**

## 2022/01/26

- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA. Gizarte Segurantza. Klase pasiboak.** 65/2022 Errege Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioak, klase pasiboen pentsioak eta beste prestazio sozial publiko batzuk 2022ko ekitaldirako eguneratzeari buruzkoa. **1189 xedapena - 29 or.**
- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA. Administrazio prozedurak. Kudeaketa informatizatua.** Ebazpena, 2022ko urtarrilaren 14koa, Gizarte Segurantzaren Institutu Nagusiaren Zuzendaritzarena, zeinaren bidez zehazten diren modu automatizatuan ebatzi ahal izango diren Gizarte Segurantzaren sistemako prestazioak, zenbait prozedura antolatu eta instruitzeko probintzia zuzendaritzei esleitzeko banaketa-irizpideak, eta pentsioak aitortzeko probintzia zuzendaritza eskuduna, Gizarte Segurantzaren nazioarteko tresna bat aplikatu behar bada. **1190 xedapena - 6 or.**

## 2022/01/27

- **BARNE MINISTERIOA. Mugak.** INT/35/2022 Agindua, urtarrilaren 26koa, zeinaren bidez luzatzen den uztailaren 17ko INT/657/2020 Agindua. Agindu horren bidez, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz, irizpideak aldatzen dira hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen herrialdeetara nahitaezkoak ez diren bidaiak galarazteko behin-behineko murrizketa ezartzeko, ordena publikoaren eta osasun publikoaren arloko arrazoiengatik. **1273 xedapena - 2 or.**
- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA. Antolamendua.** 64/2022 Errege Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren Jarraipen Batzordearen antolamendua eta funtzioak arautzen dituen. **1275 xedapena - 6 or.**

## 2022/01/28

- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA. Gizarte Segurantza.** ISM/40/2022 Agindua, urtarrilaren 24koa, zeinaren bidez Gizarte Segurantzako 2022rako kotizazio-oinarriak ezartzen diren Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziko bigarren eta hirugarren taldeetan dauden langileentzat. **1317 xedapena - 6 or.**

**E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)**

**2022/01/24**

- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. Batzar Nagusiak. BESTEAK.** Huts-zuzenketa, abenduaren 23ko 34/2021 Foru Arauaren euskarazko testuan, ekonomia suspertzeko neurriak, TicketBAI aplikatzeko neurriak eta zergen arloko neurri batzuk ezartzen dituen. Zuzendua 2021/4179. **106 xedapena - 2 or.**

**2022/01/28**

- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. Batzar Nagusiak. FORU ARAUAK.** 1/2022 Foru Araua, urtarrilaren 19koa, 9/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 28koa, baliozkotzeko dena, onesteko alda daitezela Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretu Arauemailea eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua. **139 xedapena - 1 or.**
- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. Batzar Nagusiak. BESTEAK.** Huts-zuzenketa, abenduaren 13ko 29/2021 Foru Arauan, Arabako Batzar Nagusien 2022. urterako aurrekontuari buruzkoa. Zuzendua: 2021/4076. **134 xedapena - 1 or.**

**B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)**

**2022/01/28**

- **ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA.** Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatuaren 13705/2021 FORU AGINDUA, abenduaren 20koa, zeinaren bidez, agintzen baita Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadila garapenerako lankidetzaren eta gizarte-inklusioaren eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko lehentasunezko jardueren adierazpena, irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga-araubidea eta mezenasgorako zerga-pizgarriak aplikatzeko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko maiatzaren 21eko 55/2019 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritakoa. **I-66 xedapena - 1 or.**

- **ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA.** Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatuaren 525/2022 FORU AGINDUA, urtarrilaren 13koa, zeinaren bidez agintzen baita Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadila hutsen zuzenketa bat, abenduaren 20ko 13705/2021 Foru Aginduari dagokiona, zeinak lehentasunezko jarduerak deklaritzen baititu garapenerako lankidetzan, gizarte-inklusioko emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, aintzat harturik Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 21eko 55/2019 Foru Dekretuak xedatzen duena, zeinaren bidez onesten baita irabazi-asmorik gabeko erakundeek zerga-araubidearen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien aplikaziorako erregelamendua. **I-67 xedapena - 1 or.**

## **G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)**

**2022/01/24**

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 16/2022 Foru Agindua, urtarrilaren 18koa, zeinaren bidez arautzen baitira TicketBAI fitxategiak zuzentzeko zerbitzuen beharkizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak. **304 xedapena - 41 or.**

**2022/01/27**

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 40/2022 Foru Agindua, urtarrilaren 25ekoa, TicketBAI fitxategiak zuzentzeko zerbitzuen beharkizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 16/2022 Foru Aginduaren I. eta III eranskinak ordezkatzen dituenak. **428 xedapena - 34 or.**

## **E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)**

**2022/01/24**

- Akats-zuzenketa, honako zuzentarau honena: Batzordearen 2019/1831 (EB) Zuzentaraua, 2019ko urriaren 24koa, zeinaren bidez ezartzen den lanean eraginpean egoteko mugako balio adierazgarrien bosgarren zerrenda, Kontseiluaren 98/24/EE Zuzentarauaren arabera, eta Kontseiluaren 2000/39/EE Zuzentaraua aldatzen den (Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala, L 279, 2019ko urriaren 31koa). **L 15/21 xedapena- 1 or.**

## 2022/01/26

- Batzordearen 2022/102 (EB) Betearazpen Erabakia, 2022ko urtarrilaren 25ekoa, bidaia baimen bat ukatzeko, baliogabetzeko edo ezeztatzeko formularioak ezartzen dituen. L 17/59 xedapena - 14 or.

## 2022/01/27

- **GOMENDIOAK.** Kontseiluaren 2022/107 (EB) Gomendioa, 2022ko urtarrilaren 25ekoa, COVID-19aren pandemian zirkulazio libre segurua errazteko ikuspegi koordinatuari buruzkoa, eta 2020/1475 (EB) Gomendioa ordeztzen duena. L 18/110 xedapena - 14 or.
- **GOMENDIOAK.** Kontseiluaren 2022/108 (EB) Gomendioa, 2022ko urtarrilaren 25ekoa, 2020/1632 (EB) Gomendioa aldatzen duena, COVID-19aren pandemian Schengen eremuan zirkulazio libre segurua errazteko ikuspegi koordinatuari dagokionez. L 18/124 xedapena- 3 or.

## 2022/01/28

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2022/112 (EB) Erregelamendua, 2022ko urtarrilaren 25ekoa, zeinaren bidez aldatzen den 2017/746 (EB) Erregelamendua, in vitro diagnostikorako zenbait osasun produkturen xedapen iragankorreki dagokienez eta osasun zentroetan soilik fabrikatu eta erabilitako produktuei aplikatu beharreko baldintzen aplikazio diferituari dagokionez. L 19/3 xedapena - 4 or.

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: [serviciosjuridicos@mutualia.es](mailto:serviciosjuridicos@mutualia.es)

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2  
HENAO, 26 - BILBAO